

# Istripuak, gaixotasunak eta gertaera negatiboak jasateko joera duten pertsonen eta substantzia adiktiboen kontsumitzaileak diren pertsonen nortasunaren profila

**Mikel Haranburu, Arantxa Gorostiaga, Itziar Alonso-Arbiol, Nekane Balluerka**  
UPV/EHUko Psikologia Fakultateko irakasleak

Pertsona batek gaixotasunak, istripuak eta gertaera negatiboak edukitzeko edo substantzia adiktiboak kontsumitzeko duen joera erlazionatuta dago haren nortasunaren bereizgarriekin. Ikerketa honen helburua istripuak, gaixotasunak eta gertaera negatiboak jasateko eta substantzia adiktiboak kontsumitzeko joera duten pertsonen nortasunaren profila finkatzea izan da. Hamasei eta hirurogei urte bitarteko 425 euskaldunetz (245 emakume eta 180 gizon) osatutako lagin batetik abiatuta, pertsona batek gaixotasunak, istripuak eta gertaera negatiboak edukitzeko duen joera eta substantzia adiktiboak kontsumitzea, haren nortasunaren bereizgarriekin erlazionatuta ote dauden aztertu dugu. Eraitzen arabera, istripuak eta gaixotasunak jasateko joera duten pertsonen neurotizismo-maila altuko eta ardura-maila baxuko profila agertzen dute. Substantzia adiktiboen kontsumitzaile direnek, berriz, neurotizismo- nahiz irekitasun-maila altuko eta atsegingarritasun-maila baxuko profila agertzen dute.

The tendency to suffer diseases, accidents and negative events, as well as to use addictive substances, is related to personality traits. Thus, the aim of this study was to determine the personality profile of those people with a tendency to suffer diseases, accidents and negative events and also the personality profile of those who use addictive substances. We assessed the links between a person's such a tendency or substance use and personality traits in a sample composed of 425 Basque-speakers (245 female and 180 male) whose ages ranged from 16 to 60 years. According to our results, people prone to suffer negative events display a profile characterized by higher levels of neuroticism and lower levels of conscience. On the other hand, from our study it may be concluded that users of addictive substances show a profile characterized by higher levels of neuroticism and openness to experience and by lower levels of agreeability.

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Hainbat ikerketatan ikusienez, nortasunaren bereizgarri jakin batzuk dituzten subjektuek istripuetan murgilduta aurkitzeko probabilitate gehiago dute. Bestalde, nortasunaren bereizgarrien eta gaixotasunetarako joeraren arteko erlazioa aurkitu duten zenbait ikerketa ere badira. Ildo beretik, adikzioen sorreran sarri aurkitzen diren nortasunaren ezaugarriak ere aztertu dira. Lan horietatik abiatuz, nortasunaren bereizgarriak istripuak, gaixotasunak eta gertaera negatiboak jasateko joerarekin eta substantzia adiktiboaren kontsumoarekin erlazionatzen dituzten lanak berrikusten ditugu jarraian. Nortasunaren bereizgarriak sailkatzeko Bost Handien ereduaren oinarritu garenez, eredu horren azalpenari ekingo diogu lehenik.

### 1.1. Nortasunaren ezaugarriak Bost Handien ereduaren ikuspegitik

Nortasunaren bereizgarriak sailkatzeko zenbait ikuspegi badaude ere, gaur egun oso zabalduta dago nortasuna deskribatzeko erabiltzen diren milaka bereizgarriak bost dimentsio handitan laburbil daitezkeela dioen ikuspegia.

Bost dimentsio horien deskribapenik ezagunenetakoa bat Costa eta McCrae-k (1999) egiten dutena da, NEO PI-R galdekizunaren bidez ebaluatzen dena. Jarraian agertuko dugu autore horiek egiten duten Bost Faktore Handien eta bakoitzaren fazeten deskribapena:

1. Neurotizismoa: pertsona baten emozioen ezegonkortasun-maila, eta beldurra, haserrea, erruduntasuna edo lotsaren gisako sentimendu negatiboak bizi izateko joera adierazten du. Neurotizismoan altu puntuatzen dutenek arrisku gehiago izan dezakete arazo psikiatrikoak edukitzeko, baina berez ez da neurotizismoa adierazle psikopatologiko gisa hartu behar. Badaude nahaste psikiatrikoak dituztenak, baina neurotizismoan baxu puntuatzen dutenak, eta badaude neurotizismoan altu puntuatu arren, nahaste psikiatrikorik ez dutenak.
2. Estrabertsioa edo Kanporakoitasuna: jendartean, taldeetan eta bileretan ibiltzeko, emozio indartsuen bila ibiltzeko eta emozio positiboak bizi izateko joera, asertibotasuna eta jardueretako energia-maila agertzen ditu.
3. Irekitasuna: kanpo- eta barne-munduarekiko pertsona batek duen interesa, ideia berriekiko eta balore ez-konbentzionalekiko irekitasuna. Sormenaren sustraian dagoen pentsamendu dibergentearekin erlazionaturik dago irekitasuna. Irekitasunari "adimen" deitura eman zaio Bost Handien formulazio batzuetan, baina ez dira gauza bera adimena eta irekitasuna. Badira pertsona adimentsuak, itxiak direnak, eta pertsona ez-adimentsuak, irekiak direnak. Pertsona irekiak ez dira ohituren arabera mugitzen, autoritatea kritikatzeko dute eta ideia berriak erraz onartzen dituzte. Irekitasunean baxu puntuatzen dutenek nahiago izaten dute ezaguna dena, berria dena baino.

---

1. Artikulu honetan aurkezten ditugun emaitzak "Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea" programaren esparruan Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Europar Batasunak (FEDER) finantzaturako ikerketa zabalago baten zati dira (OF863/2004).

4. Kontzientzia edo Ardura: pertsona batek bere gaitasunez duen sentimendua, auto-eraginkortasun hautemana. Zenbateraino ordenatua den, bere eginkizunak betetzeko zenbaterainoko obligazioa sentitzen duen, zer-nolako aspirazio-maila duen, zenbateraino den langilea, hasitakoa amaitzeko diziplina baduen eta ekin aurretik edo hitz egin aurretik egin beharrekoa edo esan beharrekoa pentsatzen duen.
5. Atsegingarritasuna: pertsona atsegina altruista da, besteez fidatzen eta errukitzen da, haiekin enpatizatzen du, haiei laguntzeko prest egoten da, eta nabarmendu gabe ibiltzeko joera izaten du. Puntuazio baxua dutenak nahaste nartzisista, antisoziala eta paranoikoarekin erlazionatuta agertzen dira sarri; puntuazio altua dutenak, berriz, menpeko nortasunarekin erlazionatuta.

Bost dimentsio hauetako bakoitzaren fazeten deskribapena 1. irudian aurkezten da.

Costa eta McCrae-ren (1999) bidetik, Caprara, Barbaranelli eta Borgogni-k (1995) ere egiten dute Bost Faktore Handien deskribapena, nolabaiteko aldaerak inplikatzan dituena. Gauzak horrela, autore horiek Energia deitzen diote Kanporakoitasunari, Kemena edo Adorea deitzen diote Kontzientziari, eta Egonkortasun Emozionala deitzen diote Neurotizismoaren beste ertzari. Irekitasunak eta Atsegingarritasunak izen berberak hartzen dituzte bi formulazioetan. Caprara, Barbaranelli eta Borgogni-ren nortasunaren formulazioaren ebaluaziorako Bost Handien Galdekizuna erabiltzen da; galdekizun horrek Bost Faktore Handiak eta faktore bakoitzaren bi fazeta aztertzen ditu. Hona hemen, faktore bakoitzaren deskribapenak eta fazetak:

1. Egonkortasun emozionala (EE): egonkortasun emozional txikia duen pertsona barne-hersturatu, zaurkor, emotibo, bulkadatsu, egonarri gabe eta narritakor moduan agertzen da. Azpidimentsioak: a) emozioen kontrola: esperientzia emotiboetako tentsio-egoeren kontrola; b) bulkaden kontrola: deserosotasun-, gatazka- eta arrisku-egoeretan portaera kontrolatzeko gaitasuna.
2. Energia (E): dimentsio honetan altu puntuatzen duen pertsona kanporakoi, dinamiko, aktibo, energiko, menderatzaile eta berba-jarioa duen pertsona moduan agertzen da. Azpidimentsioak: a) dinamismoa: portaera energikoak, hitz-jario handia eta entusiasmoa; b) dominantzia: gailentzeko, nabarmentzeko eta besteen gain eragiteko gaitasuna.
3. Gogamen-irekitasuna (I): gauza, esperientzia edo kultura berriez interesatua dagoen ala ez adierazten du dimentsio honek. Azpidimentsioak: a) kulturara irekitasuna: informazioarekiko, irakurketarekiko, ezagutzekiko interesa; b) esperientziara irekitasuna: ikuspegi, balore, estilo eta bizimodu ezberdin eta berriekiko interesa.
4. Kemena edo adorea (K): Autoerregulaziorako, autokontrolerako edo inhibiziorako duen gaitasuna adierazten du, hau da, zenbateraino den erreflexiboa, eskrupuloso, ordenatua, langilea eta iraunkorra. Azpidimentsioak: a) zehaztasuna: fidagarritasuna, zorrotasuna eta ordena-zaletasuna; b) iraunkortasuna: hasitakoarekin jarraitzeko gaitasuna, egoskortasuna, agindutakoa betetzeko gaitasuna.

<i>Dimentsioak</i>	<i>Fazetak</i>	<i>Esanahia</i>
	Herstura (N1)	Pertsona bat beldurtia, urduria eta uzkurra den ala lasaia eta erlaxatua den.
	Eisaitasuna (N2)	Haserrea, frustrazioa eta gorrotoa zenbateraino agertzen dituen.
	Depresioa (N3)	Zenbateraino sentitzen den errudun, malenkoniatu, bakarrak eta itxaropenik gabe.
Neurotizismoa (N)	Herstura soziala (N4)	Besteen aurrean zenbateraino sentitzen den lotsatuta, aztoratuta eta gutxiagotasun-sentimenduarekin.
	Inpulisibitate (N5)	Grinak eta haserealdiak kontrolatzeko, desireri uko egiteko eta frustrazioak eramateko gaitasunik eza.
	Zaugarritasuna/Minberatasuna (N6)	Estresari eta egoera zaileri aurre egiteko gai ez da sentitzen, eta mendeko, itxaropen gabe eta izuttua sentitzen da.
	Adidasuna (E1)	Lagunekin eta jendearekin ibiltzea atsegin duen ala erreserbaita eta bere baitan bildua den.
Estrabertisioa edo kanporakotasuna (E)	Gregarismoa (E2)	Besteekin batera ibiltzea edo besteen konpainia atsegin zaion ala bakartia den.
	Aserbitotasuna (E3)	Menderatzailea eta nabarmetzea gustatzen zaiona den ala besteen itzalean egon nahiago izaten duen.
	Jarduera (E4)	Bizkorra, kementsua, energikoa eta gelditu gabe jardutekoa ala lasaia eta erlaxatua den.
	Emozioen bilaketa (E5)	Kitzikapen eta estimulazio bila ibiltzen den ala bizitza lasaia nahiago duen.
	Emozio positiboak (E6)	Alaitasuna, zoriontasuna, maitasuna eta entusiasmoa zenbateraino agertzen dituen.
	Fantasia (I1)	Inbidimen sutua eta fantasia-bizitza aktiboa duen ala berehalako egitekoez arduratu nahiago duen.
	Estetika (I2)	Artea, olerkia, musika eta edertasuna preziatzen eta maitate dituen.
	Sentimenduak (I3)	Emozioak sakonki bizi dituen ala afektu eta sentimendu itzaliagoak dituen.
Irekitasuna (I)	Ekintzak (I4)	Jarduera berriak egiteko, toki berrietara joateko, zaletasun berrietara dedikatzeke edo janari exotikoetarako joera.
	Idiaki (I5)	Jakin-min intelektuala, ideia berriak eta ez-konbentzionalak kontsideratzeko desira ebaluatzen du.
	Baloreak (I6)	Balio sozialak, politikoak eta erlijiosoak eztabaidatzeko ala autoritateak onartu eta tradizioa egokitzeko joera.
	Gaitasuna (K1)	Bizitzako arazoei aurre egiteko norberaren gaitasunaz eta eraginkortasunaz pertsonak duen sentipena.
Kontzientzia edo ardura (K)	Ordena (K2)	Antolatua, ordenatua eta txukuna den ala desordenatua den aztertzen du.
	Eginkizunaren zentzua (K3)	Printzipio etikoak zorrozki jarraitzen dituen eta obligazio moralak zehazki betetzen dituen.
	Lorpen-premia (K4)	Bizitza norabide bat markatuta duen, helburuak lortzeko zenbateraino gogorri lan egiten duen.
	Autodisziplin (K5)	Aiseingarri zaiona gerorako uzteko eta lan bat hasi eta amaterrara eramateko trebetasuna baduen ala ez.
	Deliberazioa (K6)	Ekintzara pasatu aurretik gauzak ongi pentsatzeko ala ondorenak kontuan hartu gabe ekintzara pasatzeko joera.
	Konfiantza (A1)	Besteak ondradua eta intenzio onekoak direla ala arriskuak eta ondradutasun guxikoak direla uste izatea.
	Tolesgabetasuna (A2)	Azpilduririk gabea, egitua eta tolesgabea den ala lausenguanen eta iruzurraren bidez besteak manipulatzeko dituen.
	Altruismoa (A3)	Besteen ongizateaz aktiboki arduratzen den ala besteen arazoetan inplikatu gabe, beregan zentratuta egoten den.
Atseingarritasuna (A)	Jarrera bakegilea (A4)	Besteen adertsua den, erasokortasuna inhibitzen duen ala lehia nahiago duen eta haserre-adierazpenak egiten dituen.
	Apaltasuna (A5)	Apala den eta nabarmendu gabe pasatzeko joera duen ala besteen gainetik dagoela uste izaten duen.
	Besteekiko sentiberatasuna (A6)	Besteekiko simpatia eta kezka sentitzen duen, besteen premiek hunkitzen duten ala sentikortasun gabea den.

## 1. irudia. Costa eta McCrae-ren (1999) Bost Faktore Handien dimentsioak eta fazetak.

5. Atsegingarritasuna (A): pertsona bat zenbateraino den atsegina, lankidea, maitekorra, altruista, lagunkoia, eskuzabala eta enpatikoa aztertzen du. Azpidimentsioak: a) lankidetzaren/enpatia: besteen premiak eta arazoak ulertu eta babestu, eta haiekin lankidetzan jarduteko gaitasuna; b) maitekortasuna: konfiantza, besteenganako irekitasuna, bihotz-berotasuna.

## **1.2. Nortasunaren ezaugarriak eta istripuak, gaixotasunak eta gertaera negatiboak izateko joera**

Nortasunaren ezaugarriak eta istripuen kopurua erlazionatzen dituzten hainbat ikerketa egin dira (ikus errebisio bat Iversen eta Rundmo-ren lanean, 2002). Ikusi denez, istripuetan murgilduta aurkitzeko probabilitate gehiago dute nortasunaren bereizgarri jakin batzuk dituztenek (Vollrath, Landolt, eta Ribi, 2003). Istripuak edukitzeko joerarekin erlazionatuta daude nortasunaren dimentsio batzuk, hala nola, kanporakoitasuna, inpultsibitatea, kontzientzia, atsegingarritasuna, neurotizismoa edo irekitasuna (Friedman *et al.*, 1995; Trull eta Sher, 1994). Bestalde, nortasunaren bereizgarrien eta gaixotasunetarako joeraren arteko erlazioa aztertzen duten ikerketak ere egin dira (Adler eta Mathews, 1994). Horrela, ikusi ahal izan da nortasunaren ezaugarri batzuk dituztenek gaixotasun batzuk jasateko probabilitate gehiago dutela (Trost, Herbst, Masters, eta Costa, 2001).

Emozio negatiboak bizitzera eramaten duen neurotizismoa gaixotasunak jasateko joerarekin erlazionatuta agertzen da (Kirmayer, Robbins eta Paris, 1994; Matthews eta Deary, 1998). Pertsona bati gaixotasuna pairatzeko probabilitate gehiago ematen dion arrisku-faktore moduko bat litzateke neurotizismoa. Friedman eta Booth-Kewley-ren (1987) berrikuspen meta-analitikoaren arabera, eritasun anitz auresaten dituzte ezaugarri neurotikoen, hala nola gaixotasun koronarioak, urdail-hesteetakoak, asma, artritisa eta beste. Hala ere, oraindik eztabaidan dago ezaugarri neurotikoen eta gaixotasunen arteko lotura hau; oro har, neurotizismoan altu puntuatzen dutenek gaixotasunaren kexa gehiago egiten badute ere, ez du horrek beti esan nahi gaixotasun gehiago jasaten dutenik; izan ere, neurotikoen deskribatzen dituzten kexu asko gehiegizkoak edo oinarririkgabeak izaten dira batzuetan.

Bestalde, istripuek eragindako zauriak dituzten mutil gazteek istripurik jasan ez dutenek baino puntuazio altuagoa dute kanporakoitasunean eta puntuazio baxuagoa kontzientzian (Vollrath *et al.*, 2003).

Beren aldetik, atsegingarritasunaren puntuazio altua eta kontzientziaren puntuazio baxua duten pertsonak bizitza laburragoaren igurikapenarekin eta kalitate gutxiagoko osasunarekin erlazionatuta agertzen dira (Friedman *et al.*, 1995; Martin *et al.*, 2002).

## **1.3. Nortasunaren ezaugarriak eta substantzia adiktiboaren kontsumoa**

Ildo beretik, adikzioen sorreran sari aurkitzen diren nortasunaren ezaugarriak ere aztertu dira (McGue, Slutske, Taylor, eta Iacono, 1997; Zilberman, Tavares, eta el-Guebaly, 2003). Substantzia adiktiboaren kontsumitzaileek kanporakoitasunean, atsegingarritasunean nahiz kontzientzian baxu puntuatzen dute eta neurotizismoan nahiz irekitasunean altu puntuatzen dute (Flory, Lynam, Milich,

Leukefeld eta Clayton, 2002; Martin eta Sher, 1994; Trull eta Sher, 1994). Emozio negatiboak (beldurra edo tristura) bizi izateko eta inpultsibitatea nahiz estresarekiko minbera izateko joera adierazten du neurotizismoak. Neurotizismo-maila garaia alkoholaren kontsumorako joerarekin (Loukas, Krull, Chassin eta Carle, 2000) eta portaera arriskutsuak izateko joerarekin (Cooper, Agocha eta Sheldon, 2000) erlazionatuta agertu da.

Hainbat ikerketak agerian jarri dutenez, alkoholaren gehiegizko kontsumoa eta galarazitako drogen (marihuana, kokaina, heroina...) kontsumoa depresioarekin (N3) (Dorus eta Senay, 1980) eta barne-hersturarekin (N1) (Kilpatrick, Sutker, Roitzsch eta Miller, 1976) erlazionatzen dira, eta, dakigun moduan, fazeta bi horiek neurotizismoaren alderdiak dira.

Afektu negatiboak eta alkohol nahiz tabakoaren kontsumoa positiboki erlazionatuta agertzen dira (Dierker, Avenevoli, Stolar eta Merikangas, 2002; Wills, Sandy eta Yaeger, 2002). Dirudienez, afektu negatibo asko jasaten dituzten pertsonak substantzia adiktibo gehiago kontsumitzen dute (Cooper, Frone, Russell eta Mudar, 1995).

Era berean, substantzia adiktiboen kontsumitzaileek inpultsibitate (N5) altua agertzen dutela ikusi da, eta horrek kontzientzia-maila baxuagoa suposatzen du (Labouvie eta McGee, 1986; Skinner eta Allen, 1982). Neurotizismo altuaz eta kontzientzia baxuaz gain, atsegingarritasun baxua ere osasunarentzako arriskutsuak diren portaerekin (Vollrath, Knoch eta Cassano, 1999) eta substantzia adiktiboen kontsumoarekin (Brooner, Herbst, Schmidt, Bigelow eta Costa, 1993) positiboki erlazionatuta agertzen da.

Alkohol eta beste substantzia adiktiboen kontsumitzaileek inpultsibitate-maila altua eta egonkortasun emozional, atsegingarritasun nahiz kontzientzia faktoreen maila baxua agertzen dituzte. Kontzientzia-maila garaia osasunaren sustapenarekin erlazionatuta dago (Booth-Kewley eta Vickers, 1994); kontzientziaren puntuazio baxua alkoholaren kontsumoa mugatzeko motibazio baxuarekin (Loukas *et al.*, 2000) eta arriskuzko portaera sexualetarako joerarekin (Hoyle, Fejfar eta Miller, 2000) erlazionatuta agertzen da.

Aitzitik, kontzientzia eta autodiziplina (K5) maila garaia eta inpultsibitate (N5) maila baxua dituzten pertsonak alkohol eta tabako gutxiago kontsumitzen dute; eta dakigunez, horrek gutxitu egiten du substantzia galaraziak kontsumitzeko probabilitatea (Walton eta Roberts, 2004). Kontzientzia-mailak ordenatua, erreflexiboa, gaitua eta arduratsua izateko joera adierazten du. Kontzientzia-maila altua duenak kontrol pertsonalaren eta autoerregulazioaren sentipen handiagoa du, eta horrek babestu egiten du osasunarentzat kaltegarriak diren portaeretatik (Friedman *et al.*, 1995). Oso autoerregulatuak eta kontzienteak diren pertsonak probabilitate gehiago dute substantzia adiktiboen aurrean portaera egokiak izateko, eta probabilitate gutxiago, haiek kontsumitzeko (Adalbjarnardottir eta Rafnsson, 2001; Finn, Sharkansky, Brandt eta Turcotte, 2000; Wills, Sandy eta Yaeger, 2000).

Orain arte aipatu ditugun ikerketak kontuan hartuz, lan honen helburua istripuak, gaixotasunak eta gertaera negatiboak jasateko eta substantzia adiktiboak kontsumitzeko joera duten pertsonen nortasunaren profila finkatzea da, beren

portaerak ekar ditzakeen arriskuetatik babesteko eta zuhurragoak izan daitezen lortzeko. Pertsona baten profila ezagutzeak lagun diezaguke egoera jakin batzuen aurrean zaurigarrienak gertatzen diren haren nortasunaren alderdiak indartzen.

Gure ustez, istripu, gaixotasun eta gertaera negatibo dezente edo asko jasan dituzten pertsonak horrelako ezbeharrak jasan ez dituztenek baino neurotizismo (N), inpultsibitate (N5) nahiz kanporakoitasun (edo estrabertsioa, E) maila garaiagoa, eta ardura edo kontzientzia (K), gaitasun (K1), eginkizunaren zentzu (K3) nahiz deliberazio (K6) maila baxuagoa agertuko dituzte.

Bestalde, substantzia adiktiboak kontsumitzen dituztenek halakorik kontsumitzen ez dutenek baino neurotizismo (N), depresio (N3) nahiz inpultsibitate (N5) maila garaiagoak eta ardura (K) nahiz autodiziplina (K5) maila baxuagoak agertuko dituztela uste dugu. Era berean, substantzia adiktiboen kontsumitzaileek horrelakorik kontsumitzen ez dutenek baino atsegingarritasun (A) maila txikiagoa eta irekitasun (I) maila handiagoa agertuko dituztela auresan daiteke.

## 2. Metodoa

### 2.1. Parte-hartzaileak

Ikerketan 16 eta 60 urte bitarteko 425 euskaldunek (245 emakume eta 180 gizon) parte hartu zuten. Laginaren % 70 batxilergoko ikasleek osatzen zuten eta beste % 30 Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko funtzionarioek. Guztiek beren borondatez parte hartu zuten ikerketan.

### 2.2. Tresnak

Lagineko kide bakoitzak hiru galdekizuni erantzun zion: bi galdekizun estandarizatu, eta ikerketa honetarako bereziki eginiko datu soziodemografikoen galdekizuna.

- “NEO PI-R Galdekizuna” (*Revised Neo Personality Inventory*, Costa eta McCrae, 1999) nortasunaren Bost Faktore Handiak autoebalutzeko erabiltzen den 240 itemeko inbentarioa. Bost faktoreen izenak honako hauek dira: neurotizismoa, kanporakoitasuna, irekitasuna, atsegingarritasuna eta ardura edo kontzientzia. Faktore edo dimentsio bakoitzak sei aurpegi edo fazeta ditu. Faktore bakoitzari 48 item dagozkie eta aurpegi bakoitzari 8 item.
- “Bost Handien Galdekizuna” (*Big Five Questionnaire*, BFQ, Caprara *et al.*, 1995). 132 itemekoa. 5 dimentsio eta 10 azpidimentsio ebaluatzen ditu. Bost dimentsioen izenak hauek dira: energia, atsegingarritasuna, adorea, egonkortasun emozionala eta gogamen-irekitasuna.
- Aldagai soziodemografikoen 21 itemeko galdekizuna, ikerketa honetarako bereziki eraikia, NEO PI-Raren dimentsio eta aurpegiekin erlazionaturiko aldagaiei buruzko galderak dituena. Galdera horietan pertsonak jasandako istripu, gaixotasun eta gertaera negatiboek buruzko informazioa eta substantzia adiktiboen kontsumoari buruzkoa eskatzen zen. Bost alternatibako Likert motako eskala batean, istripu, gaixotasun eta gertaera negatibo dezente edo asko jasan zituztela erantzun zutenak gertaera negatibo horiek

jasateko joera handia zuten pertsona moduan kontsideratu ziren. Substantzia adiktiboaren kontsumitzaile moduan, berriz, arriskutsutzat zeuzkaten substantziak (hala nola tabakoa, alkohola, drogak edo dietan galarazitako substantziak) hartu gabe egonezina agertzen zuten pertsonak kontsideratu ziren.

### **2.3. Prozedura**

Ikerketa-taldeko bi kidek egin zuten datu-bilketa, parte-hartzaileen ikastetxean edo lantokian<sup>2</sup>. Pertsona guztiek bete zituzten goian deskribatu ditugun hiru galdekizunak ondoko ordenan: 1. Datu soziodemografikoen galdekizuna, 2. NEO PI-Raren euskarazko bertsioa, eta 3. Bost Handien Galdekizunaren gaztelaniazko bertsioa. Hiru frogen aplikazioak ordu eta erdi eta bi ordu bitartean iraun zuen. Kasu guztietan bermatu zen erantzunen anonimata.

## **3. Emaitzak**

Istripuak, gaixotasunak eta gertaera negatiboak jasateko joeraren eta nortasunaren bereizgarrien arteko erlazioei buruzko datuak agertzen ditugu lehenik, eta ondoren, substantzia adiktiboaren kontsumoaren eta nortasunaren bereizgarrien arteko erlazioei buruzkoak.

### **3.1. Istripuak, gaixotasunak eta gertaera negatiboak jasateko joera**

Gertaera negatibo asko bizi izan dituztenek neurotizismo-maila garaiagoa eta neurotizismoaren alderdi ezberdinen maila garaiagoa agertuko zituztela aurrean genuen. Bizi izandako gertaera negatiboaren kopuruaren arabera pertsonen artean neurotizismo-mailan eta neurotizismoaren alderdi ezberdinetan egon daitezkeen diferentziak aztertzeke asmoz, batezbestekoen konparaketarako  $t$  frogak egin ditugu eta emaitzak honako hauek izan dira, 1. taulan ikus daitezkeen moduan: gertaera negatibo asko bizi izan dituztenek gertaera negatibo gutxi jasan dituztenek baino neurotizismo (N), etsaitasun (N2), depresio (N3) eta inpultsibitate (N5) maila esanguratsuki garaiagoa eta bulkaden kontrol esanguratsuki baxuagoa agertu dituzte. Inpultsibitateari dagokion efektuaren tamaina ertainaren eta handiaren artean kokatzen da, eta gainerakoek ertainerantz jotzen dute.

---

2. EAEko administrazioko langileen kasuan, ikerketa-taldeak IVAP-HAEE erakundearekin sinatu zuen hitzarmen bati esker gauzatu ahal izan zen datu-bilketa.



<i>Dimentsioa edo fazeta</i>	<i>Gertaera negatiboen kopurua</i>	<i>Batezbestekoa</i>	<i>Sd</i>	<i>t</i>	<i>p</i>	<i>Cohen- en d</i>
Neurotizismoa (N)	Txikia	89.58	22.02	-2.234	.026	.23
	Handia	94.83	21.88			
Etsaitasuna (N2)	Txikia	13.67	4.17	-3.271	.001	.35
	Handia	15.16	4.46			
Depresioa (N3)	Txikia	14.03	5.53	-2.063	.040	.22
	Handia	15.31	6.37			
Inpulsibitatea (N5)	Txikia	14.44	4.47	-2.668	.008	.64
	Handia	15.75	4.94			
Bulkaden kontrola (BFQ)	Txikia	35.75	6.67	-3.109	.002	.33
	Handia	33.54	6.58			

**1. taula. Nortasunaren bost faktoreen eta istripuak, gaixotasunak nahiz gertaera negatiboak jasateko joeraren arteko erlazioa.**

Gertaera negatibo asko bizi izan dituztenek kanporakoitasun-maila garaiagoa eta kanporakoitasunaren alderdi ezberdinen maila garaiagoa agertuko zituztela aurrean genuen. Bizi izandako gertaera negatiboek kopuruaren arabera subjektuen artean kanporakoitasunean, jardueran eta emozio-bilaketan egon daitezkeen diferentziak aztertzeke asmoz, batezbestekoen konparaketarako *t* frogak egin ditugu eta emaitzak honako hauek izan dira, 2. taulan ikus daitezkeen moduan: beren bizitzan gertaera negatibo asko bizi izan dituztenek gertaera negatibo gutxi bizi izan dituztenek baino jarduera (E4) maila esanguratsuki altuagoa agertzen dute. Baina, kanporakoitasunari (E) eta emozioen bilaketari (E5) dagokienez, desberdintasun esanguratsurik ez da agertzen beren bizitzan istripu, gaixotasun eta gertaera negatibo asko bizi izan dituztenen eta horrelako gertaera gutxi bizi izan dituztenen artean.

Gertaera negatibo asko bizi izan dituztenek gutxi bizi izan dituztenek baino kontzientzia, gaitasun (K1), eginkizunen zentzu (K3) eta deliberazio (K6) maila txikiagoa agertuko zutela hipotetizatu genuen. Bizi izandako gertaera negatiboek kopuruaren arabera pertsonen artean kontzientzian eta haren alderdi ezberdinetan egon daitezkeen diferentziak aztertzeke asmoz, batezbestekoen konparaketarako *t* frogak egin ditugu eta emaitzak honako hauek izan dira, 2. taulan ikus daitezkeen moduan: gertaera negatibo asko bizi izan dituztenek gutxi bizi izan dituztenek baino kontzientzia, gaitasun, eginkizunaren zentzu eta deliberazio esanguratsuki gutxiago agertzen dute, efektuaren tamainek ertainerantz jotzen dutelarik.

<i>Dimentsioa edo fazeta</i>	<i>Gertaera negatiboan kopurua</i>	<i>Batezbestekoa</i>	<i>Sd</i>	<i>t</i>	<i>p</i>	<i>Cohen- en d</i>
Estrabertsioa edo kanporakotasuna (E)	Txikia	113.95	17.05	-1.337	.182	.14
	Handia	116.41	17.56			
Jarduera (E4)	Txikia	19.03	3.40	-2.656	.008	.28
	Handia	20.05	4.06			
Emozio-bilaketa (E5)	Txikia	17.85	4.68	-1.509	.132	.16
	Handia	18.58	4.20			
Kontzientzia edo ardura (K)	Txikia	115.65	19.10	2.744	.006	.29
	Handia	110.03	19.28			
Gaitasuna (K1)	Txikia	19.59	3.64	2.479	.014	.31
	Handia	18.59	4.05			
Eginkizunaren zentzua (K3)	Txikia	22.31	3.69	2.985	.003	.32
	Handia	21.10	3.98			
Deliberazioa (K6)	Txikia	18.85	4.85	3.792	.001	.40
	Handia	16.27	4.95			

**2. taula. Nortasunaren bost faktoreen eta istripuak, gaixotasunak nahiz gertaera negatiboak jasateko joeraren arteko erlazioa.**

**3.2. Substantzia adiktiboan kontsumoa**

Substantzia adiktiboak kontsumitzen dituztenek halakorik kontsumitzen ez dutenek baino neurotizismo (N), depresio (N3) nahiz inpultsibitate (N5) maila garaia goa agertuko zutela hipotetizatu genuen. Substantzia adiktiboak kontsumitzen dituzten eta kontsumitzen ez dituzten pertsonen artean neurotizismo-mailan eta neurotizismoaren alderdi ezberdinetan egon daitezkeen diferentziak aztertzeke asmoz, batezbestekoen konparaketarako *t* frogak egin ditugu eta, 3. taulan ikus daitezkeen moduan, emaitzak honako hauek dira: substantzia adiktiboak kontsumitzen dituztenek kontsumitzen ez dituztenek baino esanguratsuki altuago puntuatzen dute neurotizismoan eta haren barne-herstura (N1), etsaitasun (N2), depresio (N3), inpultsibitate (N5) eta zaurgarritasun (N6) eskaletan, efektuaren tamainek ertainerantz jotzen dutelarik.

Substantzia adiktiboan kontsumitzaileek horrelakorik kontsumitzen ez dutenek baino irekitasun-maila handiagoa agertuko zutela hipotetizatu genuen. Substantzia adiktiboak kontsumitzen dituzten eta kontsumitzen ez dituzten pertsonen artean irekitasun-mailan eta irekitasunaren alderdi ezberdinetan egon daitezkeen diferentziak aztertzeke asmoz, batezbestekoen konparaketarako *t* frogak egin ditugu eta, 4. taulan ikus daitezkeen moduan, emaitzak honako hauek dira: substantzia adiktiboak kontsumitzen dituztenek kontsumitzen ez dituztenek baino esanguratsuki altuago puntuatzen dute irekitasunean (BFQ) eta irekitasunaren estetika (I2) alderdian, efektuaren tamainek ertainerantz jotzen dutelarik.

<i>Dimentsioa edo fazeta</i>	<i>Substantzia adiktiboak</i>	<i>Batezbestekoa</i>	<i>Sd</i>	<i>t</i>	<i>p</i>	<i>Cohen- en d</i>
Neurotizismoa (N)	Kontsumorik ez	89.89	21.65	-2.582	.010	.33
	Kontsumoa bai	97.20	22.94			
Barne-herstura (N1)	Kontsumorik ez	17.54	4.70	-2.098	.036	.27
	Kontsumoa bai	18.84	5.13			
Etsaitasuna (N2)	Kontsumorik ez	13.88	4.16	-2.504	.012	.32
	Kontsumoa bai	15.27	4.89			
Depresioa (N3)	Kontsumorik ez	14.12	5.75	-2.328	.020	.30
	Kontsumoa bai	15.86	5.86			
Inpultsibitatea (N5)	Kontsumorik ez	14.50	4.48	-3.269	.001	.42
	Kontsumoa bai	16.44	5.03			
Zaugarritasuna / minberatasuna (N6)	Kontsumorik ez	13.46	4.08	-2.381	.018	.30
	Kontsumoa bai	14.75	4.60			

### 3. taula. Nortasunaren bost faktoreen eta substantzia adiktiboaren kontsumoaren arteko erlazioa.

Substantzia adiktiboaren kontsumitzaileek horrelakorik kontsumitzen ez dutenek baino atsegingarritasun-maila baxuagoa agertuko zutela hipotetizatu genuen. Substantzia adiktiboak kontsumitzen dituzten eta kontsumitzen ez dituzten pertsonen artean atsegingarritasun-mailan eta atsegingarritasunaren alderdi ezberdinetan egon daitezkeen diferentziak aztertzeko asmoz, batezbestekoen konparaketarako *t* frogak egin ditugu eta, 4. taulan ikus daitezkeen moduan, emaitzak honako hauek dira: substantzia adiktiboak kontsumitzen dituztenek kontsumitzen ez dituztenek baino esanguratsuki baxuago puntuatzen dute atsegingarritasunean (A), konfiantzan (A1), tolesgabetasunean (A2) eta jarrera bakegilean (A4), efektuaren tamainek ertainerantz jotzen dutelarik.

<i>Dimentsioa edo fazeta</i>	<i>Substantzia adiktiboak</i>	<i>Batezbestekoa</i>	<i>Sd</i>	<i>t</i>	<i>p</i>	<i>Cohen- en d</i>
Estetika (I2)	Kontsumorik ez	17.24	5.03	-2.122	.034	.27
	Kontsumoa bai	18.61	4.62			
Irekitasuna (BFQ)	Kontsumorik ez	39.34	5.96	-1.968	.050	.25
	Kontsumoa bai	40.90	6.71			
Atsegingarritasuna (A)	Kontsumorik ez	123.07	14.92	2.393	.017	.30
	Kontsumoa bai	118.18	19.45			
Konfiantza (A1)	Kontsumorik ez	18.93	4.14	2.016	.044	.26
	Kontsumoa bai	17.80	5.08			
Tolesgabetasuna (A2)	Kontsumorik ez	22.19	4.36	2.580	.010	.33
	Kontsumoa bai	20.68	5.34			
Jarrera bakegilea (A4)	Kontsumorik ez	17.61	4.03	2.754	.006	.35
	Kontsumoa bai	16.13	4.60			

### 4. taula. Nortasunaren bost faktoreen eta substantzia adiktiboaren kontsumoaren arteko erlazioa.

Substantzia adiktiboak kontsumitzen dituztenek halakorik kontsumitzen ez dutenek baino kontzientzia nahiz autodiziplina (K5) maila baxuagoa agertuko dutela hipotetizatu dugu. Dena den, substantzia adiktiboak kontsumitzen dituzten eta kontsumitzen ez dituzten pertsonen kontzientzia-mailaren batezbestekoen arteko konparaketarako Mann-Whitney-ren *U* frogak agerian utzi duenez, ez dago diferentzia esanguratsurik kontsumitzaileen eta ez-kontsumitzaileen artean, kontzientzia edo ardura (K), autodiziplina (K5) eta deliberazioari (K6) dagokienez (ikus 5. taula).

<i>Dimentsioa edo fazeta</i>	<i>Substantzia adiktiboak</i>	<i>Batezbesteko rangoa</i>	<i>Mann-Whitney-ren U</i>	<i>p</i>	<i>η<sup>2</sup></i>
Kontzientzia edo ardura (K)	Kontsumorik ez	213.15	11605.50	.325	.01
	Kontsumoa bai	197.69			
Autodiziplina (K5)	Kontsumorik ez	214.12	11267.00	.178	.01
	Kontsumoa bai	192.99			
Deliberazioa (K6)	Kontsumorik ez	216.75	10354.50	.020	.01
	Kontsumoa bai	180.31			

**5. taula. Nortasunaren bost faktoreen eta substantzia adiktiboaren kontsumoaren arteko erlazioa.**

**4. Eztabaida**

Hemen aurkeztu dugun ikerketaren bitartez, istripuak, gaixotasunak eta gertaera negatiboak jasateko joera duten pertsonen eta substantzia adiktiboaren kontsumitzaileen nortasunaren profila aurkeztu nahi izan dugu, horretarako egun oso zabaldua dagoen Bost Handien eredu erabiliz.

Gure emaitzen arabera, gertaera negatibo asko bizi izan dituzten pertsonen neurotizismoan zein neurotizismoaren zenbait fazetatan puntuazio esanguratsuki altuagoak izan dituzte. Datu hauek ados daude Kirmayer eta laguntzaileek (1994) eta Mathews eta Deary-k (1998) lortutako emaitzekin, gaixotasunak jasateko joerarekin erlaxionatuta ikusi baitzuten neurotizismoa. Zentzu horretan, gaixotasunarekin duen erlaxioaz gain, neurotizismoa gertaera negatiboetarako joerarekin ere erlaxionatuta dagoela baieztatu dezakegu eta lotura hori neurotizismoaren etsaitasun, depresio eta, batez ere, inpultsibitatearen fazetetan agertzen da.

Vollrath eta laguntzaileek (2003) Bost Handien ebaluaziorako beste tresna bat erabiliz (HiPIC, Mervielde eta De Fruyt, 1999) egindako ikerketaren arabera, istripuak jasandako hurrek istripurik jasan ez dutenek baino puntuazio altuagoa agertzen dute kanporakoitasunean. Gure ikerketan, ordea, eta oro har hartuta, gertaera negatibo asko bizi izan dituzten pertsona helduek kanporakoitasun-maila garaiagoak eta kanporakoitasunaren alderdi ezberdinen maila garaiagoak agertuko zituztela zioen hipotesia neurri batean bakarrik egiaztatu da. Izan ere, beren bizitzan gertaera negatibo asko bizi izan dituztenek gertaera negatibo gutxi izan dituztenek baino jardura (E4) maila esanguratsuki altuagoa agertzen dute, baina ez dute kanporakoitasunean (E) eta emozioen bilaketan (E5) diferentzia estatistikoki esanguratsurik agertzen. Dirudienez, haurren kasuan istripuei hertsiki loturik agertzen da kanporakoitasunaren dimentsio osoa, baina helduen kasuan

eta gertaera negatibo desberdinak kontuan hartzean, soilik jarduera fazetak aurreratu du gertaera negatiboak jasateko joera handiagoa izatea.

Friedman eta lankideek (1995), Martin eta lankideek (2002), eta Vollrath eta lankideek (2003) hurrekin egindako ikerketetan osasun kaskarragoarekin, istripu gehiago izatearekin eta bizitza laburragoaren igurikapenarekin erlazionatuta ikusi dituzte kontzientzia faktorearen maila baxuak. Gure ikerketan, helduen kasuan ere, gertaera negatibo asko bizi izan dituztenek gutxi bizi izan dituztenek baino kontzientzia-maila txikiagoak agertuko zituztela zioen hipotesia egiaztatu egin da, eta gaitasuna (K1), eginkizunen zentzua (K3) eta deliberazioa (K6) fazetetan antzematen da bereziki erlazio hori.

Substantzia adiktiboaren kontsumoari dagokionez, neurotizismo-maila garaiak alkohol eta beste drogen kontsumoarekin eta portaera arriskutsuak edukitzeko joerarekin erlazionatzen duten ikerketen bidetik (Loukas *et al.*, 2000; Dorus eta Senay, 1980; Cooper *et al.*, 2000), substantzia adiktiboak kontsumitzen dituztenek halakorik kontsumitzen ez dutenek baino neurotizismo (N) maila garaiagoak agertuko zituztela hipotetizatu genuen. Gure emaitzek neurotizismoaren eta substantzia adiktiboaren kontsumoaren arteko lotura hori baieztatu egin dute. Aldi berean, gure ikerketak harago joateko aukera ematen digu, eta substantzia adiktiboaren kontsumoa zenbait fazetarekin ere (barne-herstura, etsaitasuna, depresioa, inpulsibitatea eta zaurgarritasuna/minberatasuna) lotzen dela esan dezakegu.

Substantzia adiktiboaren abusa eta mendekotasuna irekitasun-maila handiagoekin erlazionatzen duten ikerketen harira (Flory *et al.*, 2002; Martin eta Sher, 1994; Trull eta Sher, 1994), substantzia horien kontsumitzaileek horrelakorik kontsumitzen ez dutenek baino irekitasun-maila handiagoak agertuko zituztela hipotetizatu genuen. Hipotesi hori baieztatu egiten da gure ikerketan, substantzia adiktiboak kontsumitzen dituztenek kontsumitzen ez dituztenek baino esanguratsuki altuago puntuatzen baitute irekitasunean eta haren fazeta den estetikan. Atsegingarritasunari dagokionez, eta horren maila baxuagoa substantzia adiktiboaren abusuarekin eta mendekotasunarekin erlazionatzen duten ikerketen ildotik (Brooner *et al.*, 1993; Flory *et al.*, 2002; Martin eta Sher, 1994; Trull eta Sher, 1994), substantzia horien kontsumitzaileek horrelakorik kontsumitzen ez dutenek baino atsegingarritasun-maila baxuagoa agertuko zutela aurreratu genuen. Gure ikerketan egiaztatu egin da substantzia adiktiboaren kontsumitzaileek atsegingarritasun eta haren fazeta batzuen (konfiantza, tolesgabetasuna eta jarrera bakegilea) maila txikiagoak agertuko zituztela zioen hipotesia.

Kontzientzia-maila garaiak dituzten pertsonak osasunaren sustapenarekin erlazionatuago agertu dira (Booth-Kewley eta Vickers, 1994) eta gehiago babesten dira osasunarentzat kaltegarriak diren portaeretatik (Friedman *et al.*, 1995). Hortaz, badirudi oso autoerregulatuak eta kontzienteak diren pertsonak probabilitate gehiago dutela substantzia adiktiboaren aurrean portaera egokiak izateko, eta probabilitate gutxiago, haiek kontsumitzeko (Adalbjarnardottir eta Rafnsson, 2001; Finn *et al.*, 2000; Kashdan, Vetter eta Collins, 2005; Wills *et al.*, 2000). Hemendik abiatuta, substantzia adiktiboak kontsumitzen dituztenek halakorik kontsumitzen ez dutenek baino kontzientzia (K) nahiz autodiziplina (K5) maila baxuagoak agertuko zituztela hipotetizatu genuen, baina ez da hipotesi hori

egiaztatzen gure ikerketan. Eraitza hauen balizko azalpen bat laginaren tamaina txikian egon daiteke, eta etorkizunari begira lagin handiagoak dituzten ikerketak egin beharko lirarteke.

Laburbilduz, ikerketa honen bidez, istripuak, gaixotasunak eta gertaera negati-  
boak jasateko joera duten pertsonen nortasunaren profila neurotizismo eta kanpo-  
rakoitasun dimentsioen puntuazio altuak eta kontzientzia dimentsioaren puntuazio  
baxuak definitzen dutela ikusi dugu. Era berean, substantzia adiktiboaren kontsumi-  
tzaileak diren pertsonen profila neurotizismo nahiz irekitasun dimentsioen puntu-  
azio altuak, eta atsegingarritasun dimentsioaren puntuazio baxuak definitzen dutela  
ikusi dugu. Populazio horien nortasunaren profila ezagutzeak lagundu egingo digu  
gai hauen inguruko prebentzio-neurriak bereziki nortzuei zuzendu beharko geniz-  
kiekeen ezagutzen.

Azkenik, ikerketa honen mugak gaintzeko eta etorkizuneko ikerketetan  
kontuan hartzeko gomendio moduan, ikerketa hauek lagin zabalagoekin egitea eta  
luzerako diseinuak ere erabiltzea proposatuko genuke.

## Bibliografia

- Adalbjarnardottir, S. eta Rafnsson F. D. (2001): "Perceived control in adolescent substance  
use: Concurrent and longitudinal analyses", *Psychology of Addictive Behaviors*,  
**15**, 25-32.
- Adler, N. eta Mathews, K. (1994): "Health psychology: Why do some people get sick and  
some stay well?", *Annual Review of Psychology*, **45**, 229-259.
- Booth-Kewley, S., eta Vickers, R. J. (1994): "Associations between major domains of  
personality and health behavior", *Journal of Personality*, **62**, 281-298.
- Broner, R. K.; Herbst, J. H.; Schmidt, C. W.; Bigelow, G. E. eta Costa, P. T. (1993):  
"Antisocial personality disorder among drug abusers: Relations to other  
personality diagnoses and the five-factor model of personality", *Journal of  
Nervous and Mental Disease*, **181**, 313-319.
- Caprara, G. V.; Barbaranelli, C. eta Borgogni, L. (1995): *El Cuestionario "Big Five" (BFQ)*,  
TEA, Madrid.
- Cooper, M. L.; Agocha, V. B. eta Sheldon, M. (2000): "A motivational perspective on risky  
behaviors: The role of personality and affect regulation", *Journal of Personality*,  
**68**, 1059-1088.
- Cooper, M.; Frone, M.; Russell, M. eta Mudar, P. (1995): "Drinking to regulate positive and  
negative emotions: A motivational model of alcohol use", *Journal of Personality  
and Social Psychology*, **69**, 990-1005.
- Costa, P. T. Jr. eta McCrae, R. R. (1999): *NEO PI-R, Inventario de Personalidad NEO  
Revisado*, TEA, Madrid [Jatorrizko bertsioa: (1992), *NEO PI-R, Revised Neo  
Personality Inventory*, Psychological Assessment Resources, Odessa, FL].
- Dierker, L.; Avenevoli, S.; Stolar, M. eta Merikangas, K. R. (2002): "Smoking and depres-  
sion: An examination of mechanisms of comorbidity", *American Journal of  
Psychiatry*, **159**, 947-953.
- Dorus, W. eta Senay, E. C. (1980): "Depression, demographic dimensions, and drug  
abuse", *American Journal of Psychiatry*, **137**, 699-704.
- Finn, P. R.; Sharkansky, E. J.; Brandt, K. eta Turcotte, N. (2000): "The effects of familial-  
risk, personality, and alcohol expectancies on alcohol use and abuse", *Journal of  
Abnormal Psychology*, **109**, 122-133.

- Flory, K.; Lynam, D.; Milich, R.; Leukefeld, C. eta Clayton, R. (2002): "The relations among personality, symptoms of alcohol and marijuana abuse, and symptoms of comorbid psychopathology: Results from a community sample", *Experimental and Clinical Psychopharmacology*, **10**, 425-434.
- Friedman, H. eta Booth-Kewley, S. (1987): "The disease-prone personality: A meta-analytic view of the construct", *American Psychologist*, **42**, 539-555.
- Friedman, H. S.; Tucker, J.; Schwartz, J. E.; Martin, L. R.; Tomlinson-Keasey, C.; Wingard, D. eta Criqui, M. (1995): "Childhood conscientiousness and longevity: Health behaviors and cause of death", *Journal of Personality and Social Psychology*, **68**, 696-703.
- Hoyle, R. H.; Fejfar, M. C. eta Miller, J. D. (2000): "Personality and sexual risk taking: A quantitative review", *Journal of Personality*, **68**, 1203–1231.
- Iversen, H. eta Rundmo, T. (2002): "Personality, risky driving and accident involvement among Norwegian drivers", *Personality and Individual Differences*, **33**, 1251-1263.
- Kashdan, T. B.; Vetter, C. J. eta Collins, R. L. (2005): "Substance use in young adults: Associations with personality and gender", *Addictive Behaviors*, **30**, 259-269.
- Kilpatrick, D. G.; Sutker, P. B.; Roitzsch, J. C. eta Miller, W. C. (1976): "Personality correlates of polydrug abuse", *Psychological Reports*, **38**, 311-317.
- Kirmayer, L. J.; Robbins, J. M. eta Paris, J. (1994): "Somatoform disorders: personality and the social matrix of somatic distress", *Journal of Abnormal Psychology*, **103**, 125-136.
- Labouvie, E. W. eta McGee, C. R. (1986): "Relation of personality to alcohol and drug use in adolescence", *Journal of Consulting and Clinical Psychology*, **54**, 289-293.
- Loukas, A.; Krull, J. L.; Chassin, L. eta Carle, A. C. (2000): "The relation of personality to alcohol abuse/dependence in a high risk sample", *Journal of Personality*, **68**, 1153-1175.
- Martin, L. R.; Friedman, H. S.; Tucker, J. S.; Tomlinson-Keasey, C.; Criqui, M. H. eta Schwartz, J. E. (2002): "A life course perspective on childhood cheerfulness and its relation to mortality risk", *Personality and Social Psychology Bulletin*, **28**, 1155-1165.
- Martin, E. eta Sher, K. J. (1994): "Family history of alcoholism, alcohol use disorders, and the five factor model of personality", *Journal of Studies on Alcohol*, **55**, 81-90.
- Matthews, G. eta Deary, I. J. (1998): *Personality Traits*, Cambridge, Cambridge, UK.
- McGue, M.; Slutske, W.; Taylor, J. eta Iacono, W. G. (1997): "Personality and substance use disorders: I. Effects of gender and alcoholism subtype", *Alcoholism, Clinical and Experimental Research*, **21**, 513-520.
- Mervielde, I. eta De Fruyt, F. (1999): "Construction of the hierarchical personality inventory for children (HiPIC)", in I. J. Deary, F. De Fruyt, eta F. Ostendorf (arg.), *Personality psychology in Europe*, Tilburg University Press, Tilburg, 7, 107-127.
- Skinner, H. A. eta Allen, B. (1982): "Alcohol dependence syndrome: Measurement and validation", *Journal of Abnormal Psychology*, **91**, 99-209.
- Trost, K. K.; Herbst, J. H.; Masters, H. L. eta Costa, P. T. Jr. (2001): "Personality pathways to unsafe sex: Personality, condom use, and HIV risk behaviors", *Journal of Research in Personality*, **36**, 117-133.
- Trull, T. J. eta Sher, K. J. (1994): "Relationship between the Five-Factor Model of personality and Axis I disorders in a nonclinical sample", *Journal of Abnormal Psychology*, **103**, 350-360.
- Vollrath, M. A.; Landolt, M. A. eta Ribi, K. (2003): "Personality of children and adolescents with accident related injuries", *European Journal of Personality*, **17**, 299-307.
- Vollrath, M.; Knoch, D. eta Cassano, L. (1999): "Personality, risky health behavior, and perceived susceptibility to health risks", *European Journal of Personality*, **13**, 39-50.

- Walton, K.E. eta Roberts, B. W. (2004): "On the relationship between substance use and personality traits: Abstainers are not maladjusted", *Journal of Research in Personality*, **38**, 515-535.
- Wills, T. A.; Sandy, J. M. eta Yaeger, A. (2000): "Temperament and adolescent substance use: An epigenetic approach to risk and protection", *Journal of Personality*, **68**, 1127-1151.
- ; ————— eta —————, (2002): "Stress and smoking in adolescence: A test of directional hypotheses", *Health Psychology*, **21**, 122-130.
- Zilberman, M. L.; Tavares, H. eta el-Guebaly, N. (2003): "Relationship between craving and personality in treatment-seeking women with substance-related disorders", *BMC Psychiatry*, **3**, 1.





